

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Estatuak 18,8 milioi euro emango ditu 2013ko Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ubidearen lanen jarraipena bermatzeko

*Barcina Lehendakaria Ingurumeko Estatu idazkariarekin bildu da datorren aurrekontuan Nafarroako Ubidearen finantziazioa zehazteko*

Miércoles, 19 de septiembre de 2012

Federico Ramos de Armas Ingurumeneko Estatu idazkariak Nafarroako Ubidearen lanen aurrerapen eta jarraipenarekin Gobernu zentralaren konpromisoa jakinerazi dio Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariari gaur goizean izan duten bileran. Horretarako, Estatuak 18,8 milioi euro emango ditu 2013ko Aurrekontu Orokorretan. Bileran, Barcina Lehendakariak eskatua, Madrilen burutu da, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren egoitzan.



Barcina Lehendakaria eta Ingurumeneko Estatu idazkaria.

Gogora ekarri behar da Nafarroako eta Estatuako ordezkariak joan zen uztailean Iruñan burutu zuten [ubidearen jarraipen-batzordearen zortzigarren bilkuran](#) ubidea bere osotasunean eraikitzeko konpromisoa berretsi zutela bi administrazioek eta hasiera batean erdietsitako hitzarmena aldatzea erabaki zutela lehenengo fasearen zabaltzea eta bigarrenaren diseinu eguneratua eransteko.

Horretarako, Canasa-ren kapitala 41,4 milioi eurotan handitzea aurreikusi zuten. Estatuak kopuruaren %60a jarri behar zuen eta Nafarroak %40a. Handitze hau datozen 4 urtetan egin behar da, 2014 eta 2017 artean.

Konpromiso hauek betetzeko asmoarekin, Uraren Zuzendaritza Nagusiak 18.833.000 euroko ekarpena aurreikusi du 2013ko aurrekontuetan. Kopuru hau Acuaebro Estatu Sozietatera transferituko da eta hemendik Canasa-ra 2014. urtean. Gainerakoa 2016 urtetik aurrera emango da.

Bestalde, urte amaiera baino lehen ubidearen hitzarmena aldatzea onetsi dute lehen fasearen zabaltzea eta bigarrenaren jarraipena eransteko.